

BERRIGARA

7. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, uztailak 11

Gorlax 50 urte



RENAULT

Rent a Car

Alkilerreko autoak:
Ingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

MECA

Tf. 79 50 12 / 79 52 12



MECA

San Andres auzoa • Tf. 79 50 12 / 79 59 99 • ABBASATE

Rent a Car

Alkilerreko autoak.
Eta orain
TRAFIC eta EXPRES

MECA

Tf. 79 50 12 / 79 52 12

UGARTE

AROSZTEGIA

ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak




San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefonoa eta faxa: 76 54 91



Ana Etxeberria



masajista
osteopata
esku terapeuta
kiropraxia
drenaje linfatikoa



Errekalde, 6 behea. 20577 Antzuola
Telefonoa: 76 60 13

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Inaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ALAZNE IRAZABAL

Mizpirualde Egoitzakoa

- Zenbat eskakizun jaso dira zaharrak uda-ko hilabeteak Erresidentzian igarotzeko?

- Diputazioak Udalaren laguntzaz martxan jartzen duen programa honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, urte osoan zaharrak zaintzen ematen dituzten familiarrei atsedena hartzeko aukera ematea eta bestalde, gaisorik dauden zaintzaileei ere zaharrak hona ekartzeko posibilitatea eskeintzea. Uztailerako batere ez baina abuzturako lau eskaera jaso ditugu. Lau plaza besterik ez ditugu libre eta abuzturako ez da eskaera gehiago onartuko. Hala ere, irailerako izena emateko aukera dago oraindik. Interesatuak Udaleko Ongizate zerbitzura jo dezakete.



- Zeintzuk dira baldintzak?

- Familiak pentsioaren %75a ordaindu beharra dauka eta gainontzeko %25a Diputazioaren kontura doa. Bestalde, interesatuak badute aukera beste erresidentziaren batera joateko, Eibar eta Tolosako erresidentziak adibidez programa honen barruan sartzen direlako.

“Atsedeen programaren barruan, abuzturako lau eskaera jaso ditugu”

I T U R R I O N E T I K

Gorlako kotxe igoera azaro aldera antolatzeko asmoa

Bergara Racing taldea Gorlako Kotxe Igoeraren antolakuntza berreskuratzeko asmotan dabil. Bergara Racingekoek San Martin jaien inguruan kotxe igoera berriz ere antolatzeko asmoa zeukaten baina denbora arazoak direla eta, baliteke proba azaro alderako uztea. Datozen egunetan antolatzailak Udaleko ordezkariekin izango dira zer nolako laguntzak jaso ditzaketan aztertzeko. Azken Gorlako Kotxe Igoera 1993an jokatu zen eta Aitor Zabaletak lortu zuen garaipena. Orduan Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen; aurtengo 8. edizioa Euskadiko Txapelketaren barruan sartzeko asmoa dago.

E S A N
D U T E

“Oraindik ere pilotari nafarrak hor daude eta indartsuenak dira. Egia da aurtengoa urte ona izan dela

Gipuzkoarentzat Aitor Elgoro finalera heldu baita. Ea piskanaka-piskanaka Gipuzkoak indar gehiago hartzen duen eta bertako beste pilotariren bat irtetzen den. Nor iruditzen zaidan pilotaririk onena? Julian, duda barik.

Guztion artetik onena dela uste dut nahiz eta urte asko eraman pilotan jokutzen. Aurrelaria naizenez, Titin ere asko gustatzen zait, hor aurrean sekulako gauzak egiten dituelako. Baina Retegirekin geratuko nintzateke. Debuta noizko? Hori ez dago nire esku. Horren erabakia duen jendeari demonstratu diezaiekedana nire esku dago baina beraiek deitu behar didate. Ni gertu nago baina profesionaletan gauza asko ikasten direla uste dut eta inoiz ez dakizu zein puntutaraino gertu zauden. Hor goian afizionatuetan baino askoz gehiago ikasten da”

ARITZ BERRAONDO

Pilotari antzuolarra
EL DIARIO VASCO

**EL QUINTO ELEMENTO**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**LA VIDA Y NADA MAS**

Eguena: 22:00.

▼▼ David Azurzaren zuzendaritzapean, Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak kontzertua emango dute bihar zapatua gaueko 10etatik aurrera San Pedro Parrokian. Orfeoiak, besteak beste, Bello Portuk Orfeoiarentzat konposatutako *La serpiente y la lima* estreinatuko du. Orfeoi Gazteak, berriz, Benito Lertxundi, Itoiz edo Lennon-en kantuak abestuko ditu.

**Zinea**

▼▼ Canneseko azken zine jaialdiaren sekzio ofizialari hasiera eman zion filmea. XXIII. mendeko New York hirian, *Korben Dallas* taxista (**Bruce Willis**), kasualdidez, gizartearien bukaera ebitatu dezakeen pertsona bakarra bilakatuko da. Baina horretarako bosgarren elementua topatu beharko du... **Luc Besson** zuzendariaren (El gran azul) filme honetan efektu berezi aipagarriak dira nagusi.

▼▼ Forum**Cinematographe** taldeak **Bertrand Tavernier**

zuzendari frantsesak (*Capitan Conan*) 1989an errodatutako filmea iragarri du egunerako. Lehen munduko gerratean girotutako filme antimilitarista honek, besteak beste, Europa mailako *Felix* sarietan interpretazio onenaren (**Philip Noiret**) saria eskuratu zuen.

Deiak

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du datorren eguastenean, hilak 16, arratsaldeko 6 t'erdietatik aurrera Seminarioko lokalean egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Erakusketa.** Eluska Zabalo Monje 15 urteko donostiar gaztearen margo erakusketa ikusi ahal izango da Nahikari tabernan uztailen zehar.

▼ **Txirrindulari irteera.** Bergarako Txirrindulari Elkarteak bihar zapatua Elantxobera irteera egingo du. Txirrindulariak goizeko 8:30etan abiatuko dira Plazatik.

▼ **Bilera.** Banandu, dibortziatu eta alargunen bilera domekan 17:30etan Kafe tabernan.

Ogia

▼ **Domeka 13:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 11:** Puy.
- ▼ **Zapatua 12:** Guallar.
- ▼ **Domeka 13:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 14:** Estella.
- ▼ **Martitzena 15:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 16:** Guallar.
- ▼ **Eguena 17:** Puy.

**LONBIDE
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...


Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

San Kristobal

Erromeria, bertsolariak, autoen bedeinkapena... asteburuan

Eguastenean martxan jarri ziren San Kristobal auzoko jaiek jarraipena izango dute astebukaera honetan. Bihar larunbata, arratsaldeko 4retatik aurrera, San Kristobaleko II. plater tiraketa saria jokatuko da Altos Hornoseko eskonbreran, Angiozar bidean. Aurtengoa, esan bezala plater tiraketaren bigarren edizioa izango da, iaz 40 bat partaide bildu zirelarik. Gauean, 11etatik aurrera, Luhartz talde durrangarra izango da dantzaldia alaituko duena.

Domekan, berriz, eguerdiko 12etan Meza Nagusia izango da eta ondoren ohizko kotxeen bedeinkapena. Atzo osteguna, San Kristobal eguna, kotxeen bedeinkapena egin zen baita eta ibilgailu dexente hurbildu zen San Kristobalera mezaren ostean bedeinkapena jasotzeko asmoz. Hala ere, astebukaeran izaten dira ibilgailu gehiago eta domekako bedeinkapenean ehun bat kotxe izatea espero da. Domekan, eguerdiko ordubatak aldera, auzoko jubilatuentzat luntxa emango da eta jarraian Elorza anaien saioa izango da. Zumarragako



Domekan ibilgailuak bedeinkatu egingo dira meza ostean. ARTXIBOA

trikitilariak beren pieza alaiak eskeiniko dizkiete bildutakoei. Bien bitartean umeentzako jolasak antolatuko dira.

Antolaketa lanetan arituko den Mikel Kortabarriaren hitzetan, "urtero ekitaldi berdintsuak antola-

tzen ditugu eta egia esan jende dexente etortzen da bona. Ostegun gaueko dantzaldian, harritzekoa bada ere, jende asko egoten da. Nabiz eta hurrengo egunean lana egin behar izan, lagun asko etortzen dira eta astebu-

Zapatuan gaueko 11etatik aurrera dantzaldia izango da Luhartz taldearekin

kaeran beste horrenbeste gertatzen da".

Jaiak Santa Marinaran

Ekitaldi gehienak datozen astebukerara egingo badira ere, Santa Marina-ko jaien programazioari ostegunean emango zaio hasiera. Eguerdian etxaldero jaurtiketa etakanpaihotsak izango dira eta arratsaldean, 4retatik aurrera, San Joxepe elkartearen txapelketak jokatu dira (argibideak eta izen-ematea Jubilatuetan bertan). Ondoren, 7etan, buru-haundiak eta Kobok dultzaineroen saioa izango da eta 8etan txokolatada banatuko da Matxiategin, ondoren ohizko txopoen jasotzea egingo delarik. Ostiralean herri afaria eta Duo Plaentxiren emanaldia izango dira Matxiategin. Afarirako izen-ematea Aralar, Kayak, Saloki, Bodegoian edo Antia hartegian egin daiteke. Bestalde, larunbateko haurren tanborradan parte hartzeko interesa duten gazte txoak astelehen, astearte eta asteazkenean 19:30etatik aurrera San Martin eskolan egingo diren entsaiutara ager daitezke.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Tavexeko greba dela eta

Ekainaren 16an, Tavexeko langile gehienok bilduta, kolore eta sigleig begiratu gabe elkartasun osoan, afari eder batez eman genion amaiera 87 eguneko grebari. Gau hartako giroa nahiko adierazgarri ezpaltiz balorazio gisa, LABen partetik iritzi bitxi samarrak irakurtzeko aukera izan dugu aurreko asteko Berrigararen. Beharbada eta LABek balorazioetan insistitzen duenez, komeni dena LAB beraren jokaera baloratzea da.

Emaitzak sakrifizioekin konparatuz murrizak direla diote. Jasandakoak jasan ez-pagenitu barrez lehertuko ginateteke Negoziazio Mahaian enpresarien %3 eskaintzen zutenetik "behiak esne gehiago ez duela ematen" LABeko ordezkarien ahotik entzunda gero, azkenean "hain esne gutxirako ez genuela halako pitxarrik behar" irakurri ondoren. Bestalde, nola esan daiteke ELAren erruz greba 33 egun luzatu zela, azken asanbladan 87. greba egunean, puntu erdi bateko igoera diferentziagatik greba jarraitzeko botoa aldarrikatu ondoren?

LABek dio hobe zela gazte sartu berriak (izango badira) erdi prezioan lan egitea eta zaharrei soldataren %40 kili kolo, tarifatik kanpo, uztea soldataren %0,5ko igoeraren ordainez, hori baitzen maiatzaren 14ko proposamenetara bueltatzatea. LABek 1.300 milioiko inbertsioa eta 65 lanpostu berri inon ikusi bazituen, edo Garran jaunak esandakoak sinestu bazituen, zergatik ez zuen lehen momentutik enpresaren jarrera defenditu, enpresa bera etsi eta gero defenditzen ari den bezala?

LABen beste ikuspuntu xeblebre bat: ELAk zergatik izan behar dio beldur langile asanbladari? Ez al dira bada ELAren proposamenak atera garaile egin diren bi asanblada orokorretan? ELAk benetan beldur zerrari dio: asanbladak enpresariei egokitzen zaizkienean eta enpresariek nahi dutena erabakitzeko asmotan biltzen direnean, ez beste. Beste era batera esanda: langileen ahultasunak esplotatzeko montatzen direnean eta ez beren elkartasuna sendotzeko. Eta argi ibili, denetik baitago.

Azkenik, lau sindikatu eta enpresaren arteko akordioa hain eskasa bada, zergatik sinatu dute? Inortxok ez ditu behartu; are gehiago, oraindik uko egiteko garaian daude.

Beraz, enpresaren jarrerak zuzenean onartzeko ez dago bideak moztu beharrik, ez Retegi jaunari kontuak eskatu beharrik, ezta ere tentsioak sortu beharrik; azken finean, greba egin beharrik ere ez. Amen esan eta kitto! Esne horrendako ez dago pittar beharrik, ezta ditarrerik ere.

Sindikalk logikaren ikuspegitik LABen jarrerak ez du zentzurik ez irtenbiderik; seriozki aztertu beharko litzateke zer motako interesak bultzatzen duten organizazio hau bide honetatik, eta zer nolako loturak dituen enpresarekin, jokabide hau argituko bada.

ELA EHUNGINTZA

Eskerrik asko

Bergarako Presoak Euskal Herrira ekimen herritarrek eskerrak eman nahi dizkie Bergarako kuadrilei, tabernariei eta, orokorrean, herri osoari, joan zen domekan San Martzialen gure deia zabaltzeko egindako esfortzuagatik.

Asko eta asko izan ziren, Presoak Euskal Herrira mezua idatzita zuten kamisetak jantzita, San Martzialera igo zutenak. Horregatik mila esker, bai kamiseta jantzi zenuten herritar guztiei, eta baita hori horrela izan zedin, lagundu zuten herritar guztiei, bereziki tabernariei.

BERGARAKO PRESOAK EUSKAL
HERRIRA EKIMENA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Zaborrak ateratzeko ordutegia

Bando baten bitartez, zaborrak kalera ateratzeko egunak eta ordutegia errespetatzea eskatzen die herritarrei alkateak. Egunez batzen den kasuetan, gehienez ere, pilaketa hasteko ordua baino odubete lehenago aterako da zaborra; eta gaeuz batzen den kasuetan, iluntzeko bederatzietatik aurrera. Alkateak gogorarazten du zaborrak kalera ateratzeko egunak eta ordutegia errespetatzen ez duenari 500 pezetatik 5.000rainoko isuna jarriko zaiola.

Bedelkarreko harategiak

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten 5 kilo txuletak 0056 zenbakiari egokitu zaizkio oraingoan.

HILDAKOAK

- Pablo Mendibil Maiztegi**
Uztailak 7, 77 urte.
- Federico Ansuategi Mozos**
Uztailak 7, 57 urte.
- Julia Martinez Peña**
Uztailak 8, 71 urte.
- Felix Murgiondo Larrañaga**
Uztailak 9, 74 urte.

JAIOTAKOAK

- Iker Gil Meabe**
Uztailak 2.
- Oihana Garate Maestro**
Uztailak 3.

Herritarren Foroko kideen ondorioak kalean

Bergarako Herritarren Foroko kideek, Euskal Herrian bizi dugun gatazka egoerari irtenbideak topatu nahian otsailetik ekainera bitartean egin dituzten bileren eta aztertu dituzten gaien balorazioa egin zuten martitzenean. Aurten kale istiluak eta presoen egoera izan dituzte aztergai ideologia eta iritzi ezberdinetako hainbat herritarrek.

Kale istiluei buruz egingako ausnarketak herriko ikastetxeetara bidali zituzten eta presoen egoerari buruz adostutako ondorioak martitzeneko prentsaurrekoan azaldu zituzten. Ondorio horiek, sei puntutan biltzen dira: alde batetik Euskal Herriak sufritzen duen gatazkan euskal presoen sakabanaketak *"biolentzia eta injustizia egoera areagotu egiten duela zigor ilegala delako, eta estrategia politiko honek giza eskubideak errespetatzen ez dituelako"*. Bestalde, nahi duten euskal preso guztiak Euskal Herriko gartzeletara lehenbailehen ekartzea eskatzen dute. Hirugarren puntuan, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak askatuak izan daitezela eskatzen da, eta baita legearen arabera



Ideologia eta iritzi ezberdinetako herritarrek ibili dira foroetan.

baldintzapean aske laga daitezkeenak ere. Bestalde, gaisotasun grabe eta sendaezina sufritzen duten presoak askatuak izan daitezela eta preso bakoitzak berak aukeratutako sendagilearen osabidea jasotzeko eskubidea izan dezala trabarik barik. Bukatzeko, presoen aurkako neurri arbitrarioak, hau da, trasladoak, katxeoak e.a., eta tratu txarrak buka daitezela eta presoen eskubide linguistikoenak, bai ikasketakoak eta baita familia zein lagunekiko harremanetakoak, errespetatu daitezela.

Puntu horiek kontutan hartuta, herritarren foroko kideek salatzen dituzte, alde batetik, demokraten batasunaren izenean edo momentua ez delako

inmobilismoa eta setakeria ohiko praktika politiko bihurtu dutenak; bestetik, gehiengoaren borondatea behin eta berriro zapuzten dutenak.

Bestalde, bi eskaera egiten dituzte: alde bateatik, hainbat toki, elkarte edo erakundetan sakabanaketaren aurka eta hurbilketaren alde lortu diren akordio, gomendio eta adierazpen demokratiko ugariei entzun diezaietela. Bestetik, demokraziaren izenean Euskal Herriko gehiengoaren nahia bete dezatela.

Begarako Herritarren Foroko kideek, adostutako puntu hauek guztiak herriko alderdi politikoei bidaliko zaizkiela eta hauei erantzun bat emateko eskatuko zaiela esan zuten.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Antzuolako jaiak

Datorren egunean hasiko dira Antzuolako jaiak, baina astebukaera honetan hainbat ekitaldi antolatu dira. Bihar, zapatua, saskibalo partiduak izango dira egunean zehar kanpo gorrian eta gaueko 10:30etan pilota partiduak herriko pilotalekuan: Berasaluze VIII. eta Gastesik, Ubera eta Inurrategiren kontra jokatuko dute eta Berraondo eta De Luzek, Berasaluze VIII. eta Azkarateren kontra. Domekan, bestalde, Iñaki Leteren oroimenez, 23 urtez azpikoentzako txirrindulari lasterketa jokatuko da goizeko 9:30etatik aurrera. Eguaztenean 20:00etan, zinetokian, Javier Juanesen eskutik, "Gipuzkoako jaiak: uda" izeneko ikusentzutekoa izango da. Besteak beste, Antzuolako mairuaren alardeari buruzko irudiak ikusteko aukera izango da.

Gorlako kantina

Datorren eguastenean zabalduko da Gorlako kantina berria. Asmoa eguastenean zabaldu eta domeka goizean inaugurazio ofiziala egitea da. Bertsolariak, trikitilariak eta kantariak izango dira inaugurazioan.

Jubilatuentzako programak

Udazkenean Alcoceberren hilabete bat edo bi pasatzeko aukera eskaintzen die Diputazioak jubilatuei. Bestalde, Termalismo programaren barruan, Zestoa, Arnedillo, Fitero edo Puentevesgoko bainuetxeetan hamabost egun pasatzeko aukera ere eskaintzen die. Izen-ematea Jubilatuetan astelehen, eguasten eta eguén goizetan.



Baserritarren kokalekua aldatu egingo da azokan: sototik lehenengo pisura pasatuko dira.

Oxirondoko azokako sotoan superra jartzeko baldintza pleguak onartuta

Udal gobernua onartu zituen HBren oposizioarekin

Udalbatzak Oxirondoko azokako beheko solairuan, asteburuetan baserritarrak eta tokian tokiko postuak jartzen diren tokian, supermerkatua jartzeko baldintza pleguak onartu zituen azkenengo Plenoan. EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin eta HBren kontrakoekin aurrera atera zen proposamena. Asmoa, uda honetan eskaerak jaso, adjudikatu eta obrak lehenbait lehen hastea da.

Oxirondoko azokako 800 metro karratuko sotoa adjudikazio hartzaile bakarrari, kontsezio erregimenean, adjudikatuko zaio. Kontratuaren iraupena 25 urtekoa izango da, baina beste hamabost urtez luzatzeko aukera izango da. Adjudikazioa subasta bitartez egingo da eta eskaerak aurkezteko epea dato-

rren atera arte izango da zabalik. Baldintza pleguetan jasotzen denez, lizitazio oinarria 10 milioi pezetan ezarri da eta gorantz hobetu ahal izango da. Obrak eta bestelako gastuak, superra jarriko duen presaren kontura joango dira, Udalak lekua bakarrik lagako du.

Esan behar da une honetan, astebukaeretan batez ere, bai baserritarrek eta baita beste hainbat postuetakoek, azokako beheko sotoa erabiltzen badute ere, supermerkatua jartzen denean honen gainean, azokako lehen pisuko altura berean, kokatuko direla. Bestalde, supermerkatua jartzeko obrak dirauten bitartean baserritarrak eta beheko sotoa erabiltzen duten postuetakoak azokaren kanpoaldean kokatuko dira.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Jose Migel Gazteluren aldeko mozioa ez zuen onartu Udalbatzak

Hiruko gobernuko alderdiek kontra botatu zuten

Ortega Lara bahituta eduki zuen komandoko kidea izatearen akusaziopean, joan zen astean Guardia Zibilak atxilotu zuen Jose Migel Gazteluri buruz HBk aurkeztutako mozioa ez zuen onartu udalbatzak joan zen astelehenean. Udaleko gobernua osatzen duten EAJ, EA eta PSE-EEko 10 zinegotziek kontrako botoa eman zuten eta HBko zazpiek aldekoa.

HBk aurkeztutako mozioan zera eskatzen zen: Jose Migel Gazteluri eta bere familiari elkartasuna adieraztea, atxilotuen giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko ahalegin guztiak egitea, Lege Antiterrorista ezabatzeko eskatzea, Jose Migel Gazteluren familiari laguntza ekonomikoa eta zerbitzu judiziala eskaintzea, atxilotuak Madrilgo Entzutegi Nazionalera eramaten dituztenean Udaleko ordezkari politiko bat bertaratztea eta Euskal Herrian bizi dugun egoera konpontzeko elkarrizketa bideari ekiteko eskatzea.

Mozioa, esan bezala, ez zen onartu. Koldo Pereirak, hiruko gobernua izenean, mozioari ezezkoa ematearen arrazoiak esplikatzen zituen. Pereirak esan zuenez, tamalgarria izan da Jose Migel Gaztelu herritarra atxilotua izatea, "baina ezin dugu ahaztu zein egoeratan izan den atxilotua eta Jose Antonio Ortega Lararen irudiak ikusteak zer nolako zirrara sortu digun euskaldun guztioi". Koldo Pereirak Jose Migelen giza

eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatu zuen eta HBren portaera salatu zuen, "batzuen giza eskubideen errespetua eskatzen duen bitartean, mutu gertatzen baita Ortega Larak jasan duen tratu krudelaren aurrean". Bukatzeko, Euskal Herriak bizi duen egoeraren konponketa "elkarrizketaren bitartez etorri behar dela argi ikusten dugulako, bortizkeria bideak uzteko eta biktari ateak zabaltzeko eskatzen diegu alde guztiei" esan zuen zinegotzi jeltzaleak.

Jesus Mari Garitanok eta Aitor Aranzabalek, HBren izenean, hiruko gobernua portaera salatu zuten eta Jose Migel Gazteluk jasan ditzakeen tratu txarren errudun egin zituzten. Bestalde, Pleno aretoan bildutako batzuk hiruko gobernua eta alkatearen kontrako oihuak bota zituzten eta tentsio momentuak bizi izan ziren, baina ez zen gehiagorik gertatu.



ARTXIBOA

Lekeitiora irteera

San Joxepe jubilatuen elkarteak Lekeitiora irteera antolatu du uztailaren 23rako. Irteera goizeko 9etan egingo da eta Laga, Laida eta Elantxobe bisitatu ondoren, Lekeitio bazkaria izango da. Menua honako hau: fritoak, arrain zopa, eskalopea, tarta izozkiarekin eta kafea; prezioa, berriz: 2.600 pezeta. Interesa dutenek izena eman behar dute jubilatuetan.

Orkestaren zozketa

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak antolatutako zozketan 08.394 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak astebukaera bat Aiako nekazal turismo etxe batean pasatzeko aukera izango du.

Angiolilloren heriotza

Aurtengo abuztuaren 20an Canovas del Castillo hil zuen Angiolillo anarkistaren heriotzaren 100. urteurrena betetzen da. Hori dela eta, Bergaran gertakari hura nola bizi izan zen dakitenean ahozko testimonioak nahi ditugu. = Norbaitek pasarte honi buruz euren guraso edo aitonei baditu, dei dezala Berrigarara (76 03 97).

Itsasotik itsasora

Debagunek, Deba Garaiko euskara elkartearen elkargoak, Mediterraneoetik Kantaurira bizikletaz egiteko aukera eskaintzen du uda honetan. Uztailaren 18an Lllancatik (Girona) irten eta 18 etapa egin ondoren, abuztuaren 10ean Hondarribiara iritsi. Informazio gehiago nahi izanez gero, Deba Garaiko edozein euskara elkartera jo dezakezue. Bergaran, Jardunera (76 08 19) eta Antzuolan, Idolazera.

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Egoitzaren kontua Jardunen batzarrean

Jardun Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan zen eguenean Gartzela Zaharrean. 50 batzarkide bildu ziren bertan. Elkarteko talde ezberdinetako ordezkariak iaz egindakoaren balantzea eta 97rako asmoen berri eman zuten; diru kontuak ere aztertu ziren.

Bestalde, zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zen. Honako hauek osatuko dute aurrerantzean Jarduneko zuzendaritza batzordea: Andoni Etxeberria (Lehendakaria), Itziar Kortabarria (diruzaina), Gorka Elortza (idazkaria), Miren Leturia, Ixtaso Mendizabal, Anaje Narbaiza, Arantza Gardoki eta Jose Angel Mikeo.

Egueneko Batzar Orokorrean, Jardunen egoitza berria, kafe antzokia eta Jarduneko eta Berrigarako bulegoak bilduko dituen lokalaren gaia ere aztertu zen. Jarduneko egoitza berria jartzeko, azkenaldian herrian zehar hainbat lokal ikusten ibili direla esan zuen Andoni Etxeberria Jarduneko presidentek. Zuzendaritzak lehengo Ariznoa diskotekako lokalean Jarduneko egoitza jartzeko proposamena egin zuen. Proiektua behar den moduan aztertzeke, udazkenera arte hiru lantalde osatzea proposatu zen: finantziario lantaldea, obra lantaldea eta kultura lantaldea. Hainbat bazkidek, dagoe-



Beste urte batzuetan baino jende gehiago bildu zen batzarrean.

neko izena eman dute talde batean edo bestean lan egiteko, baina interesa duen edonork Jardunera deitu eta bere izena eman dezake. Finantziario lantaldeak proiektua bideragarria den ala ez aztertuko du; obra lantaldeak, berriz, presupuestoak aztertu, obrak auzolanean egin daitezkeen aztertu,

e.a. egingo ditu eta Kultura lantaldeak, azkenik, egoitza eta kafe-antzokia dinamizatzeko kultur eskeintza posibleak aztertuko ditu. Kontu guztiak aztertu ondoren, eta lantaldeen emaitzak eskuetan izan ondoren, ez ohizko Batzar Orokorra konbokatuko da eta erabaki bat hartuko da urri inguruan.

San Martzialetakako irudiak



Eguraldia lagun, ehundaka bergarar bilu zen San Martzialeko erroemieran domekan. Diotenez,

bestetan baino jende gutxiago. Hori jakitea ez da erreza, baina argi dago jaigiroa izan zela nagusi. Bestela,

ikus argazkiak. Askotan esan ohi den bezala, mila hitz baino gehiago balio du irudi batek...

Osasuna

Zaharren elikadura

- **Zaharren elikadurak badu desberdintasunik beste adinekoen elikadurarekin?**

- Zahartzarora gero eta luzeagoa da herrialde arrreratuetan edo lehen munduan deritzon honetan sanitatean edo elikaduran eman diren aurre-rapenei esker. Metabolismoan ematen diren aldaketa nagusiak nabarmenak eta lojikoak dira.

Lehenik aipatu behar da metabolismoaren jeitsiera, hau da, energia gutxiago behar dute zaharrek, aktibitatea eta berau mantentzeko grina jeisten delako. Horregatik ez dute gazteek besteko kantitatea jan behar, kontutan izan behar da duten aktibitatea eta horren arabera jakin bakoitzak zenbatekin nahikoa zaion.

- **Zeintzuk izaten dira aldaketa nagusiak.**

- Organismoa ez da lehen bezala ibiltzen, gauza askoren artean "turn-over" edo "zelulen berziklapena" (zelula zaharrak edo baliogabeak berrituz) murriztu egiten da. Gorputzak ezin ditu zelulak lehen bezala berritu, organoak ez dira modu egokian "konpontzen". Horregatik kalitate oneko proteina eman behar zaio zaharrari, adibidez arraultzaren zuringoak (gorringoa kenduz, zahar gehientzat kaltegarria den kolesterola daukalako). Baita lekadunak (dilistak, babak..., etab.)

arrozarekin nahasturik hobe (eta odoloste, txorizo etabarrik gabe, noski).

- **Zelako elikadura gomendatzen da?**

- Bitamina eta mineralak mantendu behar dira, baina kontuz, zeren giltzurrunak ondo ez dabiltzanez, nekez joaten dira sodioa bezalako mineralak. Horregatik gatzarekin kontuz. Kaltzioa behar izaten dute, baina ez gehiegi, zeren gehiegizko kantitateak nekez kanporatzen dira: yogurrak,



BITTOR RODRIGUEZ

(Dietista eta Elikagaien teknologoa)

gazta... komeni zaizkie eta ahal dutenei esnea. Mineral eta bitaminak jateko modu egokia fruta eta barazkietan daukagu. Horrela ere fibra jaten da, eta idorreria arazoa konpontzen da. Azukre sinpleekin ere kontuz ibili beharra dago, batez ere diabetes arazoak prebentzeko.

- **Jateko gogoa ez izatean, zer egin?**

- Edadetuei gustoa hartzeko kapazitatea gutxitzen zaie, horregatik zapore intentsuagoak nahi dituzte eta gatz gehiegi nahi izaten dute. Eta jateko gogoa ere joan egiten zaie askotan. Janariaren aurkezpena zaindu behar da, gauza bariatuak eta itxura onekoak. Mazedoniak adibidez arrakasta izaten du, edo fruitak yogurrarekin... Era berean, jana biguna izatea ona da, errez jateko. Ur asko edatea ere garrantzitsua da, egariaren sentsazioa galtzen joaten baita adinarekin eta nahiz eta bere gorputzak ura behar izan, ez dute hartzen. Jateko ordutegi bat jarraitzea ere komenigarria da.

“Kalitate oneko proteinak eman behar zaizkie zaharrei, arraultza zuringoa adibidez. Baita lekadunak ere, arrozarekin nahastuta hobe”



Mineral eta bitaminak jateko modu egokia fruta eta barazkietan dago.

1970eko hamarkadan Gorlan ateratako argazkian, Angel Jauregi elurrez inguratuta.



Gorlak 50 urte

Mendizaleen aterpe

Gorla elkarteak bere sorreraren urrezko eztaiak beteko ditu datorren abuztuaren 3an. Herriko mendizale talde batek bultzatuta, orain dela 50 urte egin zen lehen elkarte Gorlan eta harez gero herriko atsedeen gune garrantzitsuen bilakatu zen inguru hori, urte gutxiren barruan makina bat elkarrekin egin zirelarik. Elkarrekin bateranoenak datarren astean egingo ditu bere 50. urteurrenaren ospakizunak.

Honorio Agirregabiriak Udal Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak antolatutako kirol sarietan sari berezia jaso zuen iaz, urtetan herriko kirolaren alde egin dako lan bikainagatik. Honorio, besteak beste, ziklismoa, atletismoa edo mendiko probak bultzatu zituen herrian eta, beste lagun batzuekin batera, Gorla elkarteko sortzailetariko bat izan zen orain dela 50 urte. Honorio 78 urte ditu gaur egun eta orain ez dauka hain gus-

toko zituen mendi irteerak egiterik. Azken urteak bere San Antonioko etxean erretiratuta eman ditu baina ondo gogoratzen ditu Gorla elkartearen hasiera haiek; "lagun koadrila nahiko haundia ibiltzen ginen orduan mendian eta mendizaleontzako elkarte edo errefuxio bat egitea pentsatu genuen. Mendi zaletasun haundia zegoen orduan Bergaran eta inguruko herrietan..., orain baino gehiago. Pol-Pol Mendizale Taldea ere martxan

zegoen ordurako, eta jende ugari ibiltzen zen astero mendian. Nik Aizkorriera ia jaiero joateko obitura neukan, Euskal Herri osoko mendietan ere ibilia naiz, baita Moncayon ere... Mendizale amorratua nintzen eta lagunak leku askotara joaten ginen. Hogeitabat laguneko taldetxo bat biltzen ginen mendi irteerak egiteko".

Gorla elkarte 1947ko abuztuaren 3an inauguratu zen, aurreko hilabetetan herriko mendizaleek

lanean gogor jardun ondoren. Honoriok gogoratzen duen moduan, "andre eta gizon, guztiak aritu ginen jo eta su lanean. Sarritan lanetik irten eta gero Gorlara joaten ginen guztion artean obra egiteko. Oker ez banoago Inazio Murua zenak landu zuen proiektua eta elkarte aurrera ateratzeko horrenbesteko diru bat botatzen genuen, geneukan ia diru guztia Gorlara bideratu genuen. Bestalde, garai hartan ez zegoen biderik Gorlaraino eta dexente

“Andre eta gizon, guztiak aritu ginen lanean. Orduan ez zegoen biderik eta dena burdiarekin igotzen genuen” HONORIO AGIRREGABIRIA

kostatu zitzaigun obra egitea. Dena burdiarekin igotzen genuen, Amestitik gora..., pentsaizu zela ibili behar izaten ginen. Baina oso gustora egiten genuen eta urte guzti hauek pasatu eta gero egindako lana hor dago”. Gorla elkarte Antzuolako terrenoetan dago kokaturik eta Hono-

rioren hitzetan, "Antia Antzuolako lehengo alkateak laga zigun terrenua, laguntza haundia eman ziguten eta guztion kolaborazioari esker elkarte aurrera atera abal izan genuen. Kontutan izan inguruan zebiltzan mendizale guztiak burbiltzen zirela bertara...". Gaur egun Io-

su Alkorta da Gorlako presidentea eta berak argitzen digunez, "basierako urte baietan emandako laguntza eskertzeko elkarteak ohorezko biru bazkide ditu: Maria Alberdi "Amesti" baserrikoa, Jacinto Ziarsola "Zabaleta" baserrikoa eta Cruz Unamunoren oinordekoak ("Azpilleta"



1947ko abuztuan inauguratu zenetik, Gorla elkarte herriko mendizaleen elkargune bilakatu zen berehala.



**GAZTELU
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnok: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



**G U R E N
P I N T U R A K**

pinturak eta paperak

Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA
Tf. eta faxa 76 33 01

OSPAKIZUNAK DATORREN ASTEAN

Gorla elkarteak 160 bazkide ditu gaur egun. Kopuru horri urteko kuotarik ordaindu beharrik ez duten herriko 15 jubilatuz gehitu behar zaizkio. Urrezko eztaiak ospatzeko Gorlak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Nahiz eta elkarteak inauguratu zeneko urrezko eztaiak, berez, abuztuaren 3an bete, ospakizunak zertxobait aurreratzeko pentsatu du Gorlako zuzendaritza batzordeak, abuztuaren beragar asko herritik kanpo oporretan egoten direlako. Beraz, datorren zapatuan, uztailaren 19an, mendi irteera bat egingo da. Gorlak interesatutako herritar guztiei bertan parte hartzeko deia egin nahi die. Irteera goizeko 8etan

egingo da Plazatik eta handik mendizaleak Uzarraga aldera abiatuko dira Basartetik. Gorlan hamarretakoa hartu ondoren, Loidi gainetik, Pagola aldera joko dute partaideek, Irutxaboletara heldu eta Bergarara berriz jeisteko. Domekan, uztailaren 20an, bazkaria egingo da elkartearen bertan. Antolatzaileek 60 bat lagun biltzea espero dute. Izen-ematea Gorlan bertan edo Mujika ferreterian egin daiteke. Bestalde, aurtengo San Martinetako danborradan lehenengoz joko da Gorlako martxa. Alfredo Gonzalez Chirlaquek landutako konposizioa (testurik gabekoa) joan zen urteko Pazkuetan estreinatu zen.

baserria). Lehen burdiarekin lagundu zuelako eta beste biak terrenua eman zutelako uraren depositoa egiteko”.

Kokaleku ezinhoea

Inaugurazioaren ondoren, Gorla elkarteak jende asko erakarri zuen

inguru hartara. Honorio ere sarritan joan izan da Gorlara; *“San Antonion bi asto kargatu eta familiakoak joaten ginen,*

egun dexente igarotzen genituen bertan. Gabonak edo oporrak ere Gorlan pasatu izan ditugu askotan. Negua izan, uda izan..., berdin zen. Oso gustora egoten ginena. Lekua zoragarria da, izugarri gustatzen zait”. Orain, berriz, Honorio ez dauka joaterik Gorlara; “alabari lagata daukat ni ez naizelako gauza orain hara joateko, ezin naiz etxetik mugitu ere egin. Bestela gustora joango nintzateke. Alaba, berriz, askotan joaten da”. Pena haundiz, Honorio ezin izango da Gorlak, urrezko eztaiak ospatzeko, hilaren 20rako iragarritako bazkarian izan; “ez, ez daukat joaterik baina ilusio handia egin dit elkarteak 50 urte betetzeak”.

Gorlako lehen elkarteak

Angel Jauregi ere gurtxitan joaten da Gorlara orain; *“urtean pare bat aldiz edo..., baina orain kotxean igotzen naute beti. Horrela ez du balio...”* argitzen digu berak. Jauregi Pol-Pol Mendizale Elkartearen sortzaile-etariko bat izan genuen. 1942. urteko martxoan sortu zen Pol-Pol elkarteak eta Angel Jauregiaren arabera, *“Gorla Pol-Polen umea dela esan daiteke; Pol-Polen ibili ginenok ekin genion piskat beranduago Gorlako proiektuari, errefuxio bat egi-*



1969ko neguan mendizale talde bat elkartearen atarian. Urte horretan berrikuntza lanak burutu ziren.

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailek eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabieskia

SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

tea beharrezkoa zela ikusi genuen". Orduan ez zegoen inolako elkarterik mendian eta inguru horretan egin zen lehena izan zen Gorla elkarte. Harrez gero makina bat elkarte jaio ziren Gorlako eremuan. Gorla elkarte ere txikia geratu zen laister eta 1969 urtean haunditze eta berrikuntza lanak egin behar izan ziren. Hasierako eraikuntzak pisu bakarra zuen eta bigarren bat gehitu zitzaion, eta harrez gero elkarteak ez du aldaketarik izan.


Angel Jauregik gogoratzen duenez, "Pol-Polarekin mendirako afizioa piztu zen herrian eta piskanaka-piskanaka jende-

ak gero eta gehiago josten zuen Gorla aldera. Hemen, Gorlan, ez zegoen ezer baina lekua ikaragarri gustatu zitzaigun basieratik, bista ezinbo-beak daude bemendik eta errefuxioa egin zen lekuan egitea pentsatu genuen basieratik. Guretako elkargune bat egitea izan zen basierako asmoa eta terrenuaren truke uste dut urtean duro bat ordaintzen geniola Antzuolako udalari, zifra sinboliko bat azken batean. Obra guztiak jendearen artean egin ziren, auzolanean. Eta herri osorako gauza bat zenez, eskatutako guztia ematen ziguten. Oso ha-



Honorio Agirregabiriak orain ez dauka Gorlara joaterik.

"Herrirako gauza bat zenez, oso harrera ona izan zuen Gorlak. Obrak egiteko eskatutako guztia ematen ziguten" ANGEL JAUREGI



Gaur egun Angel Jauregi urtean pare bat aldiz hurbiltzen da Gorlara.

rretera ona izan zuen instituzio zein jendearen aldetik". Orain, esan bezala, Angel oso gutxitan hurbiltzen da Gorlara; "83 urte dauzkat eta automobila saldu egin nuen errepidean ez ibiltzearren. Orain pare bat bider etortzen naiz bona eta, egia esan, eguraldiak laguntzen duenean ez dago hau bezalakorik. Lehen familia osoa etortzen ginen eta oso egun ederrak igarotzen genituen. Umeek ere primeran pasatzen zuten, jolasteko leku asko dago bemen".

Azken urteetan gehitu egin da Gorlara hurbiltzen den jende kopurua. Hala adierazi digu Jose

Ramon Sasiain bertako bazkideak; "azken 7-8 urtean jende gehiago etortzen dela esango nuke. Bide ona dago honaino etortzeko eta beraz jubitatuak ere gero eta aukera gehiago daukate kotxean Gorlara etortzeko. Lehen domeketan egoten zen mugimendurik gebiena baina orain, berriz, aste osoan ibiltzen da jendea, batez ere udaberri eta udako bilabeteetan". Elkartearen funtzioamenduari dago-kionez, herriko edozein elkarte eskeintzen dituen zerbitzuez gain, Gorla Alpino Taldeak nagusientzat mendi irteerak antolatzen ditu. Urtero Pol-Polarekin batera, nagusiei zuzendutako zortzi bat irteera antolatzen dira eta irteerek oso harrera ona izan dute Gorlako bazkideen artean. Mendi-zale finak Gorlakoak...

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Tatuajerik egingo zenuke zure gorputzean?




Sonia Ramudo

Ez dakit, ez dut sekula pentsatu. Egitekotan sorbaldan egingo nuke, larrosaren bat beharbada...



Julia Blazquez

Bai baina oraindik ez dut aukerarik izan, ez dut toki egoki bat aurkitu, ez dakit non egin. Orkatilan pultsera antzeko bat egingo nuke.



Ekain Sotil

Ez, ikusteko ondo daude baina ez dut nire burua tatuaje batekin ikusten.



Iban Trigo

Ez, ez nau batere erakartzen. Besteei ikustea? Batzuk ondo daude, segun non egiten diren. Besoetan adibidez ondo geratzen dira.




Paul Mujika

Ezta pentsatu ere!! Esaten dute azalean kantzerijenoa izan daitekeela. Segun ze irudi den batzuk ondo egoten dira baina nik ez nuke egingo.




Maite Hervas

Bai, horixe baietz. Oraindik ez daukat baina egiteko asmoa daukat. Larrosa bat egingo nuke sorbaldan.





Ping-pong


OLIMPIADAK




Karabola bilarra



Dardoak




Bilar amerikarra



Inskripzioa doan • Izena emateko azken eguna uztailaren 13an, Jolastokian • Sariak: mountain bike bat txapelketa bakoitzeko



Joko automatikoak Tf. 76 02 43



Futbolina




Hau alardea!

San Martzial egunean Irunen izan zena berriz nire bizi guztian ikusi nahi ez nukeen espektakulua izan zen. Hasteko, esan dezadan, ni ez naizela batere desfile eta halakoen zale, are gutxiago tartean armak baldin badaude; baina, errespetagarria da, ohiturei jarraituaz edozein festatan parte hartu eta disfrutatzea. Baina, Irungoa iskanbila iragarritako baten kronika izan zen. Aspetetan, hilabeteetan... jardun dugu batzuei eta besteei entzuten eta denok genekien zer etorri zitekeen, izan ere gauzak azken muturreraino eramaten direnean inork ez du arrazoirik izaten, edo behintzat, arrazoi erabatekoa.

Tradizioak aldatu egiten dira urteak joan ahala, edo, tradizioak ez bada ere, bai behintzat tradizioak ulertzeko modua. Ziur nago gaur egunean alardean irteten diren gizakumeak ez dutela garai batean egiten zutenen inolako antzik, ez dituztela batzuek eta besteek zigarro marka berak erretzen, eta ez dituztela galtzontzilo berdinak jutzen. Baina eurek albora utzi nahi ez duten datua da, lehengoak emakumeak behintzat ez zirela. Garbi dagoena da irundarrak direla, alardea ordaintzen dutela, alardea sentitzen dutela eta soldadu gisa parte hartu nahi dutela. Ez da hainbestearinokoa, ezta? Gizakumeen iritziz jaiak bere benetako esanahia galduko luke, lehen ez baitzuten emakumeek parte hartzen, eta, jakina, zer demonio dela eta parte hartu behar dute orain? Azken batean emakumeen presentziak bi lagun neska bera gustatzen zaiela eta gizonezkoak, elkarren artean borrokan hastea baino ez du ekarriko; izan ere, nahiz eta guk ez jakin, emakumeok parte hartzen dugun festa guztiak izorratzen ditugu.

Egia esanda, ez naiz Irungo emakumeen jokabidearekin ere guztiz ados. Gizakumeak legearekin harrapatu nahi izatea berei jokoa egitea baino ez da, eta niretzat ez du merezi horretan denbora galtzeak. Tristeena historia honetan, azken batean, da hola-koetan jabetzen dela bat nolakoak diren benetan bere herritarrak.

Marta MORAL



Ferrarixa

"Eztaukat Ford Fiesta bat erosteko dirurik eta Ferrarixa erostera noia" esaten norbait entzun ezker, zer pentsauko giñuke? "Maltzagatik Urbinara kamiñua hobetzeko, 3 edo 4 karrilleko autobide bat egiteko dirurik eztago, eta autopistia egittera goiaz" entzunda, zer pentsau bihar dogu?

Exajeraziñua kosta (100.000 milloi gutxienez, beste proiektua baiño 10 edo 20 aldiz gehixao); baztar guztiak txikitu (horko tunela eta zubixa!); peajia ordaindu bihar (2.000 pza inguru Donostiatik Gasteizera); baserri eta auzoetara joateko buelta demasa emon bihar (Amillagan eta Olan bakarrik urteeria); proiektua finantzatzeko Bilbao-Behobiako peajia beste 15 edo 20 urtez luzatu (2003an libre geratzen zan; azelakotxe faenia Durango, Eibar, eta kostako herrixendako, eta danondako).

Ez adarrik jo, mesedez!

Etxegarateren alde bixetako alkatiak be (partidu guztietakak) kokoteraiño dare. Izan be Oslotik Malagaraino, Europako Iparretik Hegoraiño (5.000 km), autobide bikoitza dago... Etxegaraten izan ezik. Hemen obrak hasi be egin barik. Zergatik? Etxegarate bikoitzu ezker eztaukalako sentidurik Urbina-Maltzagak. Gure baillaratik autopistia egin eta trafiko internazionala hemendik ekarri nahi dabe. Zertarako? Politiko eta konstruktore batzuei preguntau; oso arrazoi sakonak dauzke, itxuria, poltsikuan.

Deba Haranak autobide on baten premiñia dauka, eta egin egin bihar da, eta bizkor, baiña autopistia? Mesedez!

Pentsau daigun zentzuna nagusittuko dala, eta eztogula "Leizaran bis" bat sufridu bihar izango.

Juan Martin ELEXPURU

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

DENA

100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

ELUSKA ZABALO MONJE



erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka, 20 Tf. 76 57 71

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17

ANTZUOLA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



■ **San Fermin txiki**

Ohizkoa denez, **Xipizaro ludotekak** antolatutako udalekueetan diren gaztetxoek (3 urtetik 13 urtera bitarteko 330 aurten) **San Fermin txiki eguna** ospatu zuten astelehenean, uztailaren 7an. Txuriz jantzita eta tradizioak agintzen duen zapi gorriarekin, udalekueetako neska-mutikoez poni, basurdekume, oilar, txekor abarrekin primeran igaro zuten astelehen goiza eta Plazara hurbildutako herritarrak harrিতa geratu ziren, San Martzialen ospakizunarekin. Iruñean baino hobeto...



■ **Alexander eta Sviatoslav**

Alexander eta Sviatoslav Batenko 14 eta 8 urteko ukrainiarrak gure artean ditugu egunotan.

Euskal Herriko Chernobil elkarteak Chernobilgo hondamendia (1986an ihes erradiaktiboan izan zen bertako zentral nuklearrean) jasan duten eskualdeetako umeak Euskal Herrian denboraldi bat igarotzeko egindako deiari erantzunez, bi anaiek Ignacio Azkarate eta Lali Tartas senar-emazteen etxean igaroko dute uda. Gaztetxoeiederki asko

etorriko zaie denboraldi batez euren herritik kanpo egotea. Arnasa garbia hartu eta kutsatu gabeko janariak jatean euren osasunak nabarmen hobera egiten du eta momentuz Sviatoslav eta Alexander oso gustora ari dira Bergaran. Goizez udalekueetan ari dira eta dagoeneko ezagunak ditugu herrian. Herritarren harrera ere ezinhobea izan da eta hizkuntza zailtasunak ez dira oztopo Kieveko gaztetxoak primeran pasatzeko.

Argazkiko txakurra ere gustora aritzen da beraiekin jolasean...



Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

BEREZITASUNAK
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

MUJIKA GOZOTEGIA

Arte kale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

■ **Jardun-Komik sariak**

Jardun elkarteak antolatutako V. Komiki Lehiaketako sari banaketa egin zen ostiralean Kartzela Zaharrean. Nagusien taldean **Patxi Arzamendi atxabaltarrak** eskuratu zuen lehen saria eta Inigok eta Alex Ugalde Berrigarako kolaboratzaileak eraman zuten bigarrena; 14 urtetik 18 urtera bitartekoetan, berriz, **Oihan Vega** izan da irabazlea, Unai Azkarate (hau ere Berrigarako kolaboratzailea) bigarren tokian sailkatu da eta hirugarren saria Iban Garciak eraman du. Azkenik, gaztetxoan (12-14 urte), **Joscan Morlesin gasteiztarrak** irabazi du, Nadia Moracho izan da bigarrena ea Sara Silva hirugarren postuan sailkatu da. Bestalde, ostiraleko sari-banaketa ekitaldian, komiki lehiaketako bost edizioetan saritutako lanak biltzen dituen errebista aukeztu zen. **Jardun-Komik izeneko aldizkaria** salgai dago herriko liburutenda eta hainbat tabernatan 200 pezetaren truke. Plaiara eramateko modukoa...



■ **Cabarcenoko parkean**

Oilagorra elkarteko arrantza sailekoek
Kantabriako

Cabarceno parkera irteera egin zuten ekainaren 28an. Elkarateak antolatutako eskurtsioan 19 lagunek (gazteak gehienak) hartu zuten parte eta egun osoa eman zuten parkean. Guztiek primeran pasatu zuten eta, eguraldiak lagunduta, natura parkean ikusgai dauden animaliekin gozatzeaz gain, arrantzan egiteko aukera ere izan zuten. Argazkian esku hutsik ageri diren arren, pentsa dezakegu zerbait harrapatuko zutela...

Zertan dihardute ba?



Iñaki Ugarteburu

Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak Eibar Euki gazte mailako rugby taldea entrenatuko du datorren denboraldian. Amaitu berri den denboraldian senior taldea zuzendu du Iñakik, lehen mailarako igoera lortuz. Ugarteburuk Eibar eta INEF-Filosofia rugby taldeetan jokatu zuen eta ondoren, Eibarreko entrenatzailea zuzentzeaz gain, Xerox Getxo taldeko prestatzailea izan zen. Datorren urterako baikor azaltzen da; *"ekipo majoa osatu dugu baina jokariariak aurten kadeteak izan direnez hemendik bi urtera hobeto ibiliko garela uste dut"*.

ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...
Eskatzen aurrekontua konprometuz barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Bixenta Larrañaga

Elorriokoa jaiotzez, Arane Goikoa baserriko Bixenta Larrañagak, besteak beste, esnea, barazkiak edo ogia banatzen ditu etxerik etxe. Horrez gain, hileroko bigarren domekan, Anduagan, Ezkioko Ama Birjinaren sinesdunekin biltzen da.

- Zenbat litro esne banatzen dituzu egunero?
- 80 bat.
- Astorik badaukazue?
- Bai, ganauei jana eramateko erabiltzen dugu. Lanean kotxez...
- Noiz atera zenuen gidatze karneta?
- 31 urte nituela.
- Kotxea San Kristobalera bedeinkatzera eramaten duzu?
- Arantzazun bedeinkatu nuen.
- Zein ordutan jeikitzen zara?
- Normalean 7etan.
- Zer gosaltzen duzu?
- Kafesnea zopekin.
- Baserriko lanik gorrotagarriena?
- Denak egiten ditut gustora. Txarrena eguraldiak laguntzen ez duenean...
- Eta gustoren egiten duzuna?
- Ganauak gobernatu.
- Animalia bat?



“Baserriko lan guztiak egiten ditut gustora; txarrena eguraldiak laguntzen ez duenean... Ezkioagako Ama Birjinarengan debozioa daukat eta mundutik gorrotoa kenduko nuke”

- Behiak eta txahalak.
- **Kafea, hutsik ala esnearekin?**
- Bazkalostean hutsik, etxeko kafea.
- **Esne desnaturik?**
- Ez, ura besterik ez dauka...
- **Postrerik gogokoena?**
- Sagar errea.
- **Nondik datorkizu Ezkioagako Ama Birjinarenganako debozioa?**
- Bidente batek esan zidan, Arantzazura joan ordez, Ezkioagara joateko, hango Ama Birjinak nire ahotsa entzun nahi zuela.
- **Eta zer egiten duzue han?**
- Ia hiru orduz otoitz egin.
- **Zer eskatzen diozu?**
- Faltak barkatzeko, ondasunengatik eskerrak eman eta laguntasuna eskatzen diot.
- **Zer kenduko zenuke mundutik?**
- Gorrotoa.
- **Negar egin duzun azken aldia?**
- Oso errez egiten dut. Munduan diren gauza txarrekin pena handia hartzen dut bihotzean.
- **Eta zerekin egiten duzu barre?**
- Gauza askorekin; lehen gehiago...
- **Zer botatzen duzu faltan?**
- Fede falta haundia dagoela. Eta hortik datoz konponezinak.
- **Urtaro bat?**
- Udaberria, maiatza.
- **Oporrik badaukazu?**
- Ez dut sekula izan. Baina pozik bizi naiz. Berriro jaioko banintz baserrira etorriko nintzateke.

Garnish
Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Siaska

Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

FUTBOLIN TXAPELKETA
Oilagorra tabernan

EGUNA:

uztailaren 20an, arratsaldeko 4:30etan.

INSKRIPZIOA:

500 PTA bikoteko.

SARIAK:

25.000, 10.000, 5.000 PTA.



Joko automatikoak
Tf. 76 02 43

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Zabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

ETXEBIZITZA

Estudioa alokairuan Benidormen. ☎ 76 23 43.

Pisua salgai Zubiaurren (ganbararekin). ☎ 76 49 30.

Pisua eta garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

Pisua salgai Masterrekan. ☎ 76 08 67.

Pisua alokairuan Laredon. ☎ 76 13 86 (gauzez).

Pabiloi industrialak alokairuan. 500 m2. ☎ 76 43 37.

Pisua salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

Garajea saldu edo alokatzen da Santa Marinan. ☎ 76 47 27.

Pisua alokairuan udan Donostian, Amara auzoan. ☎ 76 31 79.

Etxe bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 11 64.

Pisua alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

Etxea salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

Apartamentua salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 50 50.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 50 97 (gauzez).

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai. ☎ 76 08 21 (20:30-22:00).

Renault 5 kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

Marzocchi bizikletarako suspentsio hidraulikoa salgai. la berria. ☎ 76 61 06.

Peugeot 504 kotxea (NA-T) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 35 09.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Kawasaki Zephir motorra (750 cc.) salgai. Egoera onean. ☎ 76 23 43.

Kawasaki GPZ motorra (400 cc.) salgai. Kilometro gutxirekin. ☎ 76 08 97.

Katukumak salgai. ☎ 76 70 90.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

Litera bat (90 neurrikoa) salgai. ☎ 76 15 06.

Yamaha Diversion motorra salgai. ☎ 76 36 03 (iloseba)..

Midi furgoneta eta karpina salgai. ☎ 74 27 48.

Renault 21 kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 29 98.

LANA

Ingeles klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 15 24.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 20 04.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

UBIko marrazki teknikorik maisua behar da. ☎ 765167.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 09 24.

Klase partikularrak udan. ☎ 76 30 35 (Unai).

1. eta **2.** hezkuntzako klaseak uztailean. ☎ 76 42 08.

OHO eta **BBB**ko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

Tabernaria lanerako gertu. ☎ 75 20 69 (Kristina).

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 907 92 35 63.

Matematika, fisika eta kimika klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 70 40.

Irakasle bat behar da 8 eta 14 urteko bi gaztetxori egunero bi orduz klaseak emateko. ☎ 7615 76.

Jatetxe edo gozotegi batean lan egingo nuke udan. ☎ 76 19 64 (Isidro Jabier).

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako (irailetik). ☎ 76 54 73.

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 76 04 56/76 58 20 (Paki).

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibargari, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73



GOROSTI
Taberna

☎ 76 62 96
Zurrategi Plaza ANTZUOLA

MUJIKA

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

BONOFOTOA



Kontxi Heis

Kontxi Heisek jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen irudia zeinek egin den galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Abdon Juaristi** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Kontxi Heisi** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da elkarte honen izena eta ze egunetan inauguratu zen?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Arloteak Oilagorra eta Bildurbarek Opel/Lam taldeen arteko finala gaur

GAUR 19:30ETAN IPINTZA FUTBOL TXAPELKETA KO TXAPELDUNA ERABAKIKO DA. TXAPELAREN BILA BI TALDE IRTENGO DIRA: ARLOTEAK OILAGORRA ETA BILDURBAREK OPEL/LAM. IPINTZARA JOATEN DIREN FUTBOLZALEEN ARTEAN TXAPELKETA AURRETIK INKESTA BAT EGIN IZAN BALITZ, GAURKO FINALA PRONOSTIKO ASKOTAN EGONGO ZEN. FINALERA HELTZEKO BI TALDEEK GOGOR SAIATU BEHAR IZAN DUTE. ARLOTEAK OILAGORRAKOEK FACUTAREN AURKA PENALTIAN LOTERIAN EGIN ZUTEN AURRERA. BILDURBAREK OPEL/LAMEKOEK, OSTERA, GAUZA BERBERA EGIN ZUTEN A ZE FLAXA ETXAGIREN AURKA FINALERDIAN. BI TALDEEI BEGIRATUZ, ARLOTEAK OILAGORRAREN DEFENSA SENDOA ETA BILDURBAREK OPEL/LAMEN INDIVIDUALITATEAK DIRA AZPIMARRATZEKOAK. PRONOSTIKOAK EGITEA ZAILA DA ETA GU EZ GARA AUSARTUKO. ESAERAK DIOEN MODUAN: IRABAZ DEZALA ONENAK!

EMAITZAK

Final laurdenak	
ARLOTEAK OILAGORRA-FACUTA	0-0
OSINTXU-MONGATXURRAK	1-6
A ZE FLAXA ETXAGI-XURRUPAK	3-1
MANITOU LAM-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-3

Final erdiak

ARLOTEAK OILAGORRA-MONGATXURRAK	1-0
A ZE FLAXA ETXAGI-BILDURBAREK OPEL/LAM	2-2

FINALA

Eguakitzza 11

19:30: ARLOTEAK OILAGORRA-BILDURBAREK OPEL/LAM

GOLEGILEAK BERRIGARA

8 Gol *SARIA*

Gorka Davila (XURRUPAK)

7 Gol

Juan Luis Etxaniz (BILDURBAREK OPEL/LAM)

6 Gol

Igor Alberdi (MANITOU), Marcos Alonso (OSINTXU)

5 Gol

Asier Alberdi (EZINLEIKE), Jabi Ibarra (A ZE FLAXA)



Gorka Davila (ezkerrean) eta Juan Luis Etxaniz

Jokoz kanpo



MAITE LAZKANO

FUTBOL JOKALARIA

ZENBATERO JOATEN ZARA IPINTZARA?

Batzuetan etortzen naiz, ez beti.

ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN TALDEA?

Mongatxurrak.

FINALA ZEINEK IRABAZIKO DU, ARLOTEAK OILAGORRAK ALA BILDURBAREK OPEL/LAMEK?

Ez dakit zeinek irabaziko duen, baina Bildurbarek Opel/Lamek jokalaria onak dituen arren, beharbada Arloteak Oilagorra da faboritua. Ikusi egin behar...

ZEIN DA LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Realekoa naiz, baina gehien Stoichkov gustatzen zait.

ETA REALETIK?

Gica Craioveanu.

ATZERRITARREN ALDE ALA AURKA?

Kalitatea ematen badute, alde.

POSIBLE DA IPINTZAKO TXAPELKETA EMAKUMEZKOENTZAT?

Jendea prest izango balitz gustatuko litzaidake jokatzea.

BADAGO NESKARIK?

Nik uste dut baietz, futbito txapelketan neska asko dabil eta jokatzera animatuko lirateke.

ZE POSTUTAN GUSTATZEN ZAIZU JOKATZEA?

Aurrean.

GOLAK SARTZEA ZELA GUSTATZEN ZAIZU GEHIAGO, HANKAREKIN ALA BURUAREKIN?

Buruarekin baina zailagoa da.

■ PAREKOTASUNA FINAL ERDIETAN

FINAL ERDI EZBERDINAK BIZI IZAN DITUGU AURTENGO TXAPELKETAN. LEHENENGOAN ARLOTEAK OILAGORRAK MONGATXURRAKEN AURKA EMAITZA ESTUAGATIK LORTU ZUEN GARAIENA (1 ETA 0) ETA EZ ZEN EMOZIO HANDIEGIRIK IZAN PARTIDUAN ZEHAR. BIGARRIN FINAL ERDIA IKUSITA, BERRIZ, FUTBOLA KIROLAREN ARTEAN ERREGE DELA ESATEN DUTENEI ARRAZOA EMAN BEHARKO DIEGU. IZAN ERE, LEHEN ZATIAN BILDURBAREK OPEL/LAM TALDEA AURRERATU ZEN IÑAKI ARRIETAREN GOL BATI ESKER. ETA A ZE FLAXA ETXAGIK BITTOR GIMENEZEN GOL BATEKIN BERDINKETA LORTU ZUEN LEHEN ZATIA BUKATZEAR ZEGOENEAN. BIGARRIN ZATIAN A ZE FLAXA ETXAGIK HARTU ZUEN AURREA JABI IBARRAREN GOL BATI ESKER.



BAZIRUDIEN A ZE FLAXA ETXAGIKOEK LORTUKO ZUTELA FINALERAKO TXARTELA, BAINA PARTIDUA BUKATZEKO BI MINUTU FALTA ZIRENEAN, JUAN LUIS ETXANIZEK, NOLA EZ, BERDINKETA EMAN ZION BERE TALDEARI. PENALTI JAURTIKETEN TXANDAN TALDE BAKOITZEKO LEHENENGO BOST JOKALARIK GOLA LORTU ZUTEN ETA A ZE FLAXA ETXAGIKOEN 6. PENALTI JAURTITZAILARI BILDURBAREK OPEL/LAMEKO ATEZAINAK BALOIA GERATU ZION. ORDUAN ETORRI ZIREN ARGAZKIETAN IKUS DITZAKEZUEN BATZUEN ALGARAK ETA BESTEEN TRISTE AURPEGIAK. HALA ERE, AZKENEAN, HORRELAKO PARTIDU BATEKIN TXAPELKETA BERA IZAN ZEN GARAILA. ZORIONAK BI TALDEEI, ETA BAITA EPAILEARI ERE, EGINDAKO LAN ONAGATIK



TXINPARTAK

Estatuko txapelketan

Ariznoa gimnasia erritmikoko taldeok lan bikaina egin zuten asteburuan Bartzelonan jokaturako klubaren eta autonomien arteko estatuko txapelketan. Ane Miren Fernandezek, junior mailan, 7. eta 8. postua lortu zituen soka eta pilota probetan. Taldeka, berriz, 5. postua lortu zuen eta autonomia mailan, azkenik, bigarren bukatu zuen. Jubenil mailan, Amaia Ortiz de Urbinak 13. eta 22. postuak lortu zituen soka eta maza probetan eta 16. eta 27. postuak aroan eta zintan

Goreneko mailan

Etxe babesle bila badabilta ere, BKEko saskibaloi talde nagusiak lehen maila autonomikoan jokatu du datorren urtean.



Mikel Uribesalgo markak hautsiz

Mikel Uribesalgo Arrasate Atletiko taldeko kirolari bergararrak marka bikaina lortu zuen luzera jauzian, duela 15 egun Durangon jokaturako Euskadiko klubaren arteko txapelketan. Uribesalgok 6,30 metroko jauzia egin zuen eta Gipuzkoako sailkapenean 6. lehenengoaren artean dago une honetan. Halaber, Mikel Santxo, Bitor Rodriguez eta Usue Lazkano atleta bergararrek maila polita erakutsi eta lan ona egin zuten ordezkatzeko duten Arrasate Atletiko taldea Euskadiko mailan mantentzea lortuz.

Enrique Nieto BKEko entrenatzaile berria

Enrike Nieto izango da datorren denboraldian BKEko futbol talde nagusiaren entrenatzailea. Nieto joan zen denboraldian jubenil mailako taldearen entrenatzaile izan zen eta Nazional mailako entrenatzaile tituloa dauka. Jokalari moduan, BKEko maila guztietan jokatu du eta azkenengo urteetan Aretxabaletako UDAn aritu zen. Une honetan ezkon bidaian dago eta martitzenean Bergarara etortzekoa da. Nieto etorri bezain laister hasiko dira BKEko arduradunak lehen taldearen datorren urteko plangintza egiten.



Saturraranetik Debara

Beti Busti elkarteak Saturraranetik Debara 4. itsas ibilaldia antolatu du domekarako. Irteera goizeko 10:30etan Saturraraneko hondartzan izango da eta eguerdirako Debako hondartzan izatea espero dute. Guztira 55 kilometroko ibilaldia izango da eta bukatu ondoren, Debako hondartzan, kaiak surf erakustaldia izango da. Era berean, partehartzaileentzat luntxa izango da. Beti Busti taldekoak goizeko 8etan Oxirondo elkartetik irtengo dira eta norbaitek eurekin joan nahi badu 76 16 60 telefonora deitu edo ordu horretan Oxirondon agertzea besterik ez du.



Jose Luis Beitia

Ipintza futbol txapelketakoa

Futbito
NESKEN
TXAPELKETA

■ **EMAITZAK**

Power Rantxeras-Potzu. 2-4
 Gu Geu-Burdinezko Damak. 6-0

■ **PARTIDUAK**

Power Rantxeras-LTB
 Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.
 Potzu eta Zapaburuak-PWA
 Astelehena. 19:00. M. Altuna.
 LTB-Nahikari
 Martitena. 19:00. M. Altuna.
 Burdinezko Damak-Gu Geu
 Martitena. 20:00. M. Altuna.
 Gu Geu-Nahikari
 Eguastena. 19:00. M. Altuna.

■ **PENALTIAK**



Monika Garitano
BURDINEZKO DAMAK

ZEIN DA TXAPELKETAKO
JOKALARIRIK ONENA?

Saioa Bolibar.

ETA TALDEA?

Potzu eta Zapaburuak.

ZER POSTUTAN GUSTATZEN

ZAIZU JOKATZEA?

Atzealdean.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Valery Karpin.

DE PEDRO ALA ALKIZA?

De Pedro.

BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?

Ez.

■ **SAILKAPENA**

1. Power Rantxeras. 33 puntu.
2. Potzu Ta Zapaburuak. 32.
3. LTB. 28.
4. Gu geu. 23.
5. PWA. 20.
6. Blue Star. 16.

Ipintzako futbol txapelketak 25 urte bete ditu aurten. Jose Luis Beitia hasieratik antolaketa batzordean dabil lanean. Urte hauetan txapelketak izan duen bila-kaera eta aurtengoaren balantzea egiteko berriketan aritu gara futbolzale haundi honekin.

- Noiz hasi zineten txapelketa antolatzen?

- 1970.enean Ipintzako txapelketa bukatu zen eta 1972an Seminarioan hasi ginen antolatzen, Ipintza igerilekuak egiteko itxi egin baitzuten. 1979ra arte, urtero antolatu genituen Seminarioko txapelketak eta urte batzuetan txapelketa barrik izan ondoren, 1983tik 1985era bitartean Ipintzan txapelketa berriz ere antolatzen hasi ginen. 1992an hasi genuen azkenengo etapa eta aurtengoa, azken aroko seigarren txapelketa da.

- Zela hasi zineten?

- 1972an zuzendaritzan sartu nintzen; ordura arte infantilen txapelketa antolatzen nuen. Joxe Mondrauek nagusientzako txapelketa antolatzeko animatu ninduen eta zapatu eta igandetan hasi ginen jokatzeko. Guztira 10 taldeekin hasi ginen eta bosteko bi multzotan banatu genituen. 72ko final hura uztaillaren 18an jokatu zen eta Beti Onak taldeak irabazi zuen. Ondoren, urte-urte partaidetza igotzen joan zen; urte batean 20 talde izan ziren lehian.

- Zein izan da garairik politena?

- Giro aldetik Seminarioko txapelketa hobea izaten zen. Finalak ikusten igual 1.000 lagun inguru izaten ziren. Gainera, sarrera ordaintzen zen eta Seminarioa leporaino betetzen zen. Ipintzara etorri ginenean, 1984-85 urteetan, giro polita izaten zen, baina orain giroa piskat moteldu egin da.

- Lehen taldeek auzoa ordezkatzeko zuten.

- Hasieran taldeek auzoa ordezkatzeko zuten, Madura, Acero... Gero poliki-poliki selekzioak egiten hasi ziren. Lehenengo urteetan jokalaria federa-


tuz osatutako taldeak egiten hasi ziren, baina hirugarren urterako federatuen kopurua mugatzen hasi ginen. Era berean, Seminarioko zelaia txikia zelako, 9 jokalarirekin jokatzeko zen eta bakarrik 3 aldaketa egin zitezkeen.

- Etapa berria zela baloratzen duzu?

- Talde beteranoak oraindik aurrean daude, gazteek ezin diete irabazi.

- Aurtengo txapelketarekin pozik?

- Bai, jentek asko lagundu du eta kolaboratzaile talde handia lortu dugu. Oso pozik gaude.



"Aurtengo txapelketan jende askok lagundu du".

“Gazteek ezin diete talde beteranoei irabazi oraindik”



Argazkia: Pol-Pol Mendizale Taldea

Degurixara mendi irteera

Pol-Polek gazttxoei zuzendutako mendi trabesia bat antolatu du astebukaera honetarako eta aste honetan orain dela 14 bat urte egindako mendi irteera bateko argazkia dakarkizuegu erretratu zaharrera. Goian agertzen direnak Degurixan izan ziren 1983an eta badirudi egun bat baino gehiago igaro zutela bertan, baten bat lo egiteko zakuarekin agertzen baita. Pentsatzen dugu ez zuela siesta egiteko eramango... Ziur guztiek gogoan izango dutela orduan egindako irteera: lagunartean pasatuko lehen gau eta egunak, etxekoen babesik gabeko egunak mendian, beraiek kanpinean prestatuko lehen bazkari eta afariak dastatzen (eta amaren janari goxoekin ametsetan)..., eta etxera bueltatzeko irrikiz.

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara.

Zutik: Aitor Elorza, Ion Alberdi, Alatz Larrañaga, Miguel Angel Diaz, Alex Arroyo, Jose Ramon Iturbe, Jon Lazkano, Iñaki Garcia, Mikel Gantxegi, Iñaki Arenaza, Igor Mujika, Iban Etxeberria, Mikel Lijo, Iñaki Barrutia, Jakue Mendizabal eta Kepa Irizar.

Makurtuta: Mikel Unamuno, Asier Elorza, Mikeldi Garmendia, Unai Lonbide, Asier Lazkano, Ion Leturia eta Aitor Garcia.


Industria
homikuntzak

U
UNIFE

Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!